



*...“Baliak egindako
salto ta marruak
ziran izugarri ta
ikaratzekuak
arpoiakin hil zuten
han ziran hangoak” ...*

Balearen bertsoak: Benito Lertxundi

XVI. mendean euskaldunak Ternuara joaten ziren baleak arrantzatzerara. Aste honetan zehar haien ohiturak eta eraikitzen zituzten ontziak nolakoak ziren ulertuko dugu garai hartako munduan murgilduz.

Horretarako zinema zuzendarien larruan jarriko zarete eta dokumental bat osatuko duzue. Bertan hiru ideia nagusi azaldu beharko dituzue:


- Maketa baten eraikuntzaz lagunduz, txaluparen eraikitze prozesua.
- Arrantza-tokien aldaketaren zergatia.
- Arrantzak euskal ekonomian zuen garrantzia.



Dokumentala osatzeko, garai hartako balearen arrantzaren garrantzia eta euskaldunak Ternuara iristearren arazoak aztertu beharko dituzue; baina baita ontziak nola eraikitzen ziren. Bide horretan Historia, Teknologia, Arte hezkuntza eta Informatikako arloetako irakasleen laguntza izango duzue baina ez ahaztu ZUEK izango zaretela filmaren zuzendariak, aktoreak eta muntatzaileak.

JARDUERAK

Zuen helburua lortzeko zenbait eginbehar izango dituzue.



HASIERAKO JARDUERA: jarduera honek martxan jartzeko eta gaiari sartzeko balioko dizue. Jon Maiaren "Apaizac obeto" film dokumentala ikusiko dugu.

IKERTZE JARDUERAK

- Hasierako jarduerak ere ikerketan lagunduko dizue, ikusten duzuen bitartean informazio baliagarria eskuratu ahal izango duzue, beraz, adi!

- Gizarteko liburuan ataltxo bat aurkituko duzue (104. Orrialdea) zuen helburua lortzeko primerako informazioa duena. Saiatu informazio hori antolatzen Xmind programaren laguntzaz eta irakurketa partekatua eginez. Kontutan hartu, taldekide guztiek, kontaktu behar duguna ondo ulertzea ezinbestekoa izango dela dokumentalaren emaitza primerakoa izateko.

- Dokumentalean ontziak nola egiten ziren azaltzeko maketa bat eraiki beharko duzue. Baina lehenik eta behin ikertu beharko duzue nolakoak ziren baleak arrantzatzerako txalupa haiek eta informazio hori erabiliz zuen maketaren krokisa (marrakizko kotatua, bistak eta despiezea barne) marraztu. Maketaren tamaina honako izango da:

Luzeran: 40 cm

Zabaleran: 13 cm (Bere atalik zabalenean)

Altueran: 13 cm

SINTESE JARDUERAK

Behin ikerketa guztiak egin ditugula sintesi jarduerak osatuko dituzue. Bertan orain arte ikasitakoa gauzatuko duzue.

- Aurretik bildutako informazioa eta krokisa erabiliz txalupa baten maketa eraikiko duzue. Maketaren armadura (hezurrak) txapakumez egindako piezak erabiliz egingo dira eta kanpoko estaldura izozki poloen makiltxoekin.

- Lortutako informazioarekin zuen dokumentalaren gidoia prestatu beharko duzue. Gogoratu informazioa zuzena izan behar dela eta koherentzia mantendu behar duela. Alde batetik alderdi historikoa kontatuko dugu eta beste aldetik, alderdi teknikoa.

- Bideo edizio programa erabiliz dokumental bat osatu beharko duzue. Horretarako aurretik materiala bildu eta sortu beharko duzue (ikertze jardueretan): irudiak, bideoak, musika, narrazioak... Dokumentalak 10 minutu inguruko luzera izan beharko du eta hasieran azaldutako edukiak azalduko ditu.

- Proiektua egiten duzuen bitartean eguneroko bat osatzen joan beharko duzue. Eskuz egin behar da eta azkeneko notaren %10 balioko du. Beraz, ondo pentsatu eta argudiatu erantzunak.

- Proiektua bukatzean ebaluazioa egiteko ordua da. Bakoitzak bere autoebaluazioa egingo du eta baita bere taldekoena ere.

ERREKURTSOAK

- Euskal ontziei buruzko web orria <http://bertan.gipuzkoakultura.net/23/eus/22.php> albaola <http://www.albaola.com/eu>
- Apaizac obeto dokumentala (75 min):
<http://www.dailymotion.com/video/k6wF6eVX9j2CqE3JeUo>
<http://www.dailymotion.com/video/k4SN9Vt05gpmFw3JeUK>
- Euskaldunak eta arrantza (Gizarte liburua 104. orrialdea)
- http://es.wikipedia.org/wiki/Balleneros_vascos
- http://eu.wikipedia.org/wiki/Euskal_Herriko_baleazale
- <http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20070429/15496/eu/Baleaeuskal/kostaldea/zipriztindu/eta/aberastu/zuen/animalia>
- <http://zientzia.eus/artikuluak/euskal-balea-mittoa-baino-gehiago/>
- Euskal itsasontziak historian zehar: http://www.karmelaldizkaria.com/upload/pdf/karmel-2009-1-Euskal_itsasontziak_historian_ze.pdf

EBALUAKETA

6 izango dira ebaluatuko diren itemak eta ikasgai ezberdinetan item horiek pisu ezberdina izango dute:

	ZER EBALUATUKO DUGUN?	ZER IKASGAIETAN?	AZKENEKO NOTAN IZANGO DUEN PISUA
1	Egunerokoa	Ikasgai guztiak	%10
2	Maketa	Teknologia	%35
3	Dokumentalaren muntaia	Informatika	%65
4	Dokumentalaren informazioaren koherentzia	Gizarte eta Teknologia	Gizarten %65 Teknologian %30
5	Dokumentalaren atal artistikoa	Plastika	%65
6	Autoebaluaketa eta behaketaren bidez talde lana eta baliabideen gestioa (lanaren banaketa, lan giroa, denboraren eta baliabide materialen gestioa)	Ikasgai guztiak	%25